

Telebista Haranburuan

(..) Funtsean, Haranburuko sukaldean telebista sartu ordutik, gauzak, egunetik egunera, arrunt aldatzen hasi ziren eta haurrak tarrotuz zoazela, Batita Haundiak garbi sentitu zuen, behin betiko zerbait trenkatzen ari zela : familiako goxotasuna suntsituz, hemendik aitzina, tresna arrotz bat ukanen zutela etxean nagusi !

5 Eta hori bera gertatu... Akabo, zaharren hitz-zuhurrak ! Akabo, gizaldien arteko lokarria ! Bazkari denboran bereziki, ez zuten gehiago funtsezko solas handirik erabiltzen ahal... telebista etengabe bizi zelako eta gainera zein gora ! Eta sekula, alaba Katixari zerbait erraten bazion, soinua apaltzeko edo telebista itzaltzeko... Aaa ! Orduan, haurrak oldartzen zitzaizkion amari : ezetz eta ezetz, 10 uzteko zen bezala !

Batita Haundiari barnea sutan jartzen zitzaion, belarriak aldiz arrunt tutatuak zituela, baina kasik aldiro, bakearen izenean, amor ematen zuen, pentsatuz bortizkiegi mintzatzen bazen, ez zuela berdin deus irabaziko... Jada horrela, aski lan bazuen ! Zeren, telebistari so zaudelarik, bati edo besteari zerbait galdatzen bazion, 15 batzutan, ez zioten erantzuten ere !

Mahaiburuan, bortxaz mutu pasatzen zituen bulta luze haietan, iragan momentu erakargarriez oroitzen zen eta alegia deusez, orduko giroa eta elkarrizketak arraberritzen zituen, noiz behinka begitartea alaitzen zitzaizkion. Aita hil zenetik bederatzi egun berantago haren leku bera hartu zuen : mahaiburua, beste 20 puntan aldiz ama zuelarik eta saihetsetan bere sei anai-arrebak.

Gero, pirka-pirka, haurride bakoitza bere alde abiatu zen, dela sehi, dela langile, nahiz sortetxerako itzulia ahal bezain usu egiten zuten, urrutiko berri eta bozkario ekarriz. (..)

Ikusten zituen ere, bere lau haurrak eta Dominika bere emazte zena mahai beraren inguruan, dena irri-karkaila eta batzutan berdin, dena kasaila.

Orduko bizimodutik eta gaur egunekora, zer aldaketa, bere ongaitzekin !

Eta Batita Haundiak, behin baino gehiagotan, bere burua poxolu bezala kausitzen zuen, hain urte laburrez, arrunt bestelakaturik zen sukalde hartan. Poxolu eta... soberakin !

Daniel Landart, *"Batita Haundia"*, 1992, Elkar

Tarrotuz : handituz

Kasaila : samurgoa

Erakargarri : goxo, gustagarri

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE

ÉPREUVE : **BASQUE (Navarro-labourdin)**

Ce sujet comporte deux pages.

Page 1/2

I – ULERMENA : (10 puntu)

- 1) Zer dakigu Batita Haundiaren familiaz? (L2 ; S2)
- 2) Zer aldatu zuen telebistaren sartzak Haranburuan eta Batitaren bizian ? (L2 ; S2)
- 3) Barnea sutan izanik ere, zergatik amor ematen zuen Batitak ? (L2 ; S2)
- 4) Zer jarrera hartzen du Batitak eguneroko etsidurari ihes egiteko ? (L1 ; S1)
- 5) Zer erran dezakegu haurren eta aitamen arteko harremanetaz ? (L2)
- 6) Itzulpena : « Mahaiburuan... »-tik « ... zitzaiolarik » arte. (L1 ; S3)

II – ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 puntu)

“S” sailekoek bi gaietarik bat hautatuko dute

1. Zer dira, zure ustez, telebistaren ongaitzak ? Zergatik ? (L5)
2. Xaharrek gure gizarte modernoan duten tokia onargarria iduritzen ote zaizu ? Adibide ezberdinak baliatuko dituzu zure oharren azaltzeko eta garatzeko. (L5)